

GUADALUPE-KO ITURRIAREN BENDIZIOA.



Ondarrribian Abenduaren 8.^{an} 1884.^{an}

Euskal-Erriaren Zuzendari Jauna.

Nere adiskide maitea: ¡Zer bistá ikuskarria arkitzen dan nere begien aurrean egunsentiko istante onetan Guadalupe-ko dorretik! Choriak kantari daude; zelaiak eta arbol orriak intzez bustiak: itsa-soa mugí gabe ta paketsu; Zerupea urdiñ ta garbi; aizea ere biguñ, guchitan gerta oi dana urte muga onetan; erreka eta iturri leiarrezkoak mur-murka, eta zeruargien errege, bere urrezko errañuak zabaltzen mendi muñotara. Izate denak dirudi parretsu Zeruetako Erregiñaren sortze garbiaren egunean.

Asi dira ezkillen mingañak egunaren irteeran Ama Birjiñari diosal egiten: badator jendea polliki mendia gora, lendik berri eman ziran mezak entzutera: artu du te Jauna batzuek; aditu degu Jaungoikoaren itza guziok, On Franzisko Gilbeauk egin digun prediku egokiaren bidez: eta Ama Santisimaren alabantzan gozoak kantatu ondoren, badijoa jendea mendia beera bakoitza bere eche-
ra, bazkalondoan berriro igotzeko asmoarekin, ikus dezaten iturriaren bendizioa.

Ezagun da eguraldi ederra eta lasaia dagoela! Emen dator berriro erri guzia mendia gora: bidechigor guziak arkitzen dira jendez beteak; bat edo beste zaldiz eta gañerakoak oñez, or datoz iji ujuka eta kantari; senarrak, eskutik dituztela aur batzuek eta bizkarrean besteak; emazteak kandelakin; eta galai alaiak eta neskach lirañak, euren merendakin. Allegatu da Kabildo errespetotsua eta baita ere Ayuntamentu argidotarra; eta piska bat atsegin ta gero, ezkillen *tilin talanak* aditzera ematen dute, urbildu dala eleizkizuna asitzeko muga.

Kantatu dira ospatsu besperak; baña ¡nola kabitu ainbeste jende eleizachoa! lautikan iru kanpoan daude, ala ere oen biotzak arkitzen dira barrenen; zeren burutsik eta errezatzen daude modes-
terik aundienarekin, aundi ta chiki, zar ta gazte, eta aberats bear-
tsu, guziak naasirik, Euskal-errian antziñatik bildu oi diran bezela, onelako eginkizunetan.

Irten dira apaizak eleizatik euren gurutzea gora alcharik, Ayuntamiento dutelarik ondoren, eta alderatu dira *ongi-etorri* deritzaion iturri berrira. Kantatu dituzte Aita Arana-ren koplak egokiak, zeñai baidizkien paratu musiká, On Klaudio Jauregik, igaz uri onetako euskal-pestetan saritua izandu zan, emen jaiotako ume erneak, zeña baitago ikasten Madrid-en; eta iturri eta bere gañeko arrizko Ama Birjiña bedeinkatu, eta *Ave Maris Stella* kantatuaz oni diosal egiñ ondoren, an dijoaz santuen letania kantari aintzirara, zeñari bai zaio paratu izena *garbitasuna*. Kantatu dituzte emen ere A. Arana-ren beste koplak batzuek, zeñaren musika baita On Esteban Lasa, uri onetako Organista Jaunarena, eta itzuli dira, au ere bedeinkatuta gero, Eleizara, non kantatu duten *Te Deum*.

Bukatu da Eleizkizuna eta asi dira zizirikuak egaatzen, chupina-zoak soñu egiten, chistu danboliñak eta musika jotzen, eta neska-mutillak, modu aundiarekin dantzatzen, denbora berean Ama Birjiñari diozkatelarik kantatzen *ongietorriren* koplak, soñuari puntuak artuaz. Oeki begira daude batzuek, besteak sagardua edaten; jende mordoska batzuek euren zapi zuriak zabaldu zelaietan, eta umore onean merendatzen; eta beste asko On José Ign.^o Echena-gusia, uri onetan jaiotako seme abillak pintatu eta On José Joakin Olló, Bikario Jaunari erregalatu dion kuadro bikañari begira; zeñetan arkitzen diran Guadalupeko Eleizachoa, bere inguru politak eta, itsas urdiña, laztanchoak emanaz Prantzi aldeko ondartzai.

Bedeinkatu duten iturri onek du jaiotza, Guadalupetik 1.100 metroa. AndreMaria-ren kabi santu polit ari dago itsas-ertza baña 180 metro gorago, eta beste 85 metro altuago urá artu dan tokira. Iturri onek zuen antziñatik izena, José aundiren iturria. Depositoa dago Guadalupe-tik 700m, bidean, eta 60 bat m. ermita baño altuago; eta kabitzen ditu 8.000 litro ur, isurtzen dalarik litro bat 9 segundoan. Lan guziak egin dira On José Antonio Berrotaran, emengo seme argia buru dala. Onek egiña da iturriaren gallurreko arrizko Ama Birjiña aiñ egokia; eta arritzeko lana da, iturritik aintzirara jechitzeko egin duen eskallera. Arroka bizi batean malluz atereak arkitzen dira 36 malla.

Limosnan bildu diran diruakin eta auzolanakin egin da iturri polit ori. Aundietakoa izandu da noski auzo guzien borondatea lanerako; eta esamiñatuko balirake egin diran lan guziak, entzun dizkiet gizon adituai, igoko lutekela 1.500 bat ezkutu loditaraño: bada kañu utsak kosta dira 600 ezkutu lodi; aundietakoak izan dira argiñ lanak, eta guziez gañera, asko kostatzen da kaletik mendira igotzea, bear diran gaiak. Emanaitasun aundia izan da erri guzian; ez ditut

para nai geiena eman dutenaen izenak, zeren bildur naiz utsegiteko; bakarrik esango det, baidakidala izan dala persona arrotz bat 125 ezkutu lodi eman dituen; baña zorrik aundiena izango diogu, lan aundi ori, beste asko lenago artu izan dituen bezela, bere gain? artu zuenari; au da, gure Bikario Jaun egille biziari.....

Itsas-ertzean eguzkia sartutzeko mukan ekin diogu guziok mendia beera gure bideari, egun on bat irago ondoren. Sekula ez dira juango nere burutik bidean aditu ditu dan jolasak. ¿Zer iruditu zaitzu Maintoni, gaur Guadalupe-n egin diran pestak? galdetu zion Amandre batek, neskach zuri-gorri lirañ bati.

—Nere denbora chikian guchi ikusi ditudan bezelakoa. Izandu naiz bazter oetako erromeri askotan, baña ez ditut iñon ikusi ainbeste jende bildu dan tokichi batean, aiñ ongi egiten, ala Eleiz-lanak non ondorengo jostaketak. Askotan aditu nuen ez dala probintzian beste erri bat au beziñ alkaturik, eta egiaz, ala izan bear du. Nik uste det, jende arrotz askoren gañera, Ondarribi guzia or zala, eta ala ere, ez diot ikusi begiratze char bat egiten iñori. ¡Jaungoikoak bedeinka ditzala orrelako erriak!.... Esan bezait, Andre Madalen, berorrek jakingo du, emengoa dan ezkerro: ¿Zeñek eman du dirua, or egin diran lan egokien bidez aiñ iturri ugaria eta ederra ainbeste bidetik orrera ekarritzeko?

—¡Ai gaiñoa! Badegu Bikario Jaun bat, diruz pagatzen ez dana. Limosnan bildu dituen diruakin eta auzolanean egin dira lan oriek guziak, eta or ikusten diran aundiagoak: orri buruan jartzea aski da, or zer nai lan egiteko: zeren aiñ aundia da Euskal-errian dioten naitasuna gure Ama Birjiñari, eta batezere uri onetan; ezik, ez da auzorik gogoz laguntzen ez dionik, batzuek diruakin eta besteak lanakin, aliketa bukatu arte gizon argi orrek asitzen dituen lanak. Zakur bati tiratzeko arditik gabe asi zituen or ikusi dituzun arri landuzko dorre ederra eta eskill aundiak; eta kosta arren 12.000 ezkutu lodi guchienaz, bildu zituen andik edo emendik, nondik pagatu. Gero acha zuen, *guruzpidezko* cherko eder ori, erdian Jesus-en Zerurako igoera duelarik, zeña baizitzaion kostako 5.000 ezkutu lodi: egin zuen arroka bizian *Baratz otoitza*: berritu zuen Serorechea: berak bakarrik daki zer gastatu duen kaiol santu orren barrena apaintzen; eta orain paratu digu, ikusi dezun bezela, iturri ain polita, gañean pan poso duelarik gure Ama Birjiña-ren antz oso-oso; eta bere oñetan aintzira aiñ egokia.

—Baña, Andre Madalen, ¿limosna utsarekin egiten dira aiñ lan aundiak?

—Bai emakumea. Bera dezu lendabiziko ematen duena sortu al

guzia; eta askotan gogoratzen zait, *umeak egiten ote dituzten* ematen zaizkan diruak.

—Beraz ongi gastatuak izango dira aĩn gogoz guk gaur bota ditugun chanponak.

—Bai, Maintoni, bai. ¿Eta, uste dezu geldituko dala bizi dan artean? Bide egoki bat egiteko asmoak ditu aspaldichoan. Jira ta bira emen ibilli da bazter guztiak ikusten, nondik eta nola egin ditekcan koche bidea, maldarik chikienarekin; eta izutu samar egon arren asko dalako kostua, uste degu ekingo diola egunen batean; eta asi ezkeru, lenchoago edo gerosoago, egiñ egingo da.

—¡A! Ori egiñ ezkeru, on an aundi bat litzake Ondarribientzat eta biotz berá duten guzientzat; zeren, jendea geiago eta maizago etorriko litzake bere miñaen sendagai billa mendi muño ospatsu orretara. Eta ¿nork daki ez litezkean egingo Begoñara, Aranzazura eta Iziarra egin diran gisako peregrinazio edo bidagoak orrera ere?

—Ala da: aundia da gure Ama Birjiña Guadalupe-koaren ganako debozioa, batezere mariñelak eta arrantzaleak dutena: orri begiratzten diote, eta orrengana dute euren esperanza guzia, itzas genasian arkitzen diran perilletan.—

Gisa onetako itzalkar asko adituaz, jechi nintzan illunabarrenean errira, eta diosal egoki bana alkarri eginta sartu giñan Andre Madalen ta ni bakoitza bere eche chokora, eta Maintonik artu zuen Irun aldeko bidea, bere lagunakin.

Oitura oek dirauten bitartean, ez dago gure izkuntz paregabea galdutzeko bildurrik; ez dira sekula juango gure gogotik Lege-zar jakintsuak, eta beti iraungo dute Euskal-errian, egiazko libertadeak; zeñak baidira, Aitor, Aitalen eta beste guraso zarrak aoz-ao erakutsi eta gugaño allegatu diran oitura garbi eta zuzenak.

Eskuan daukadan ezkeru luma nolapait chorroztua, ez det lajatu nai beste berri bat eman gabe zure paperaren irakurleai. Zeruetako Erregiñaren serbitzariak edo *Maria-ren alabak* duten Elkargoak, gaur estreñatu du estandarte chit eder bat. Erdian du Ama Birjiña Konzeziokoa eta bazterrak ditu urrez chit egoki bordatu eta apainduak. Da Andre Rosa Aristegi, Mirasolgo Konde izanduaren biotz berako alabak pintatua eta erregalatua; zeñak bai du iragotzen urteoro uda emen, bere semecho erneak itsas-ertz oetako olatu zurietan bustitzen. Aditu diot pintore maisu bati esaten; guchi dirala lan mueta oetan arkituko diranak au beziñ egoki egiñik.

Agindu nai dezun guzia, Zuzendari Jauna, zure serbitzariari; zeña dan,

OTAEGI-KO KLAUDIO.

